BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

598

AGINDUA, 2012ko urtarrilaren 12koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, 2012-2013 ikasturtean Cambridge-ko Unibertsitateko Clare Hall bisitatuko duten ikertzaileei laguntza bat emateko Aukeratze Batzordearen osaketa izendatzen duena.

2011ko abenduaren 13ko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren Aginduaren bidez diru-laguntza bat deitu zen Cambridge-ko Unibertsitateko Clare Hall bisitatuko duten ikertzaileentzat. Aginduak, 7. artikuluan hau xedatzen du:

1.– Aukeratze-batzorde batek ebaluatuko ditu eskaerak eta erabakiko du nori esleitu laguntza. Kide hauek osatuko dute batzorde hori.

a) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak edo eskuordetzen duen pertsonak. Batzordeburua izango da.

b) Clare Hall-eko Fellowship Committee-ko presidenteak.

c) Aditu akademikoak -gehienez ere, bi-Cambridge-ko Unibertsitatekoa bata eta Euskal Autonomia Erkidegokoa bestea, akordio honen diziplina nabarmenetan esperientzia zabala izango dutenak, Clare Hall-eko Fellowship Committee-ko presidenteak eta Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak hurrenez hurren aukeratuak. Hautagaientzat espezialitate asko biltzen badira, alderdiek beste aditu bat proposa dezakete.

Horren arabera, hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Irakasle hauek izendatzea, 2012-2013 ikasturtean Cambridge-ko Unibertsitateko Clare Hall bisitatuko duten ikertzaileei diru-laguntza bat emateko Aukeratze Batzordeko kide gisa:

– Pedro Luís Arias Ergueta jauna.

– Sir Martin Harris jauna.

– Javier Fernández Sebastián jauna.

– Jonathon Pines jauna.

2. artikulua.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean sartuko da Agindu hau indarrean.

3. artikulua.– Aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari administrazio-bideari amaiera ematen dion agindu honen aurka, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko urtarrilaren 12a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.